

# Kalitatearen politika

## xedea

**Martiodako Faunaren Suspertegia** ARABAKO FORU ALDUNDIAREN INGURUMEN SAILAK kudeatzen duen erakundea da eta, *Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legean 60 artikuluan* agertzen den legezko eskakizunarekin bat etorrira, basafauna birgaitzeko eta horren inguruko ikerketa proiektuetan lankidetzan aritzeko helburua du.

## ikuspegia

Zauritutako basafaunaren arreta eta ingurumen-hezkuntzari dagokionez, Gizartearen erreferentzia-erakundea izan nahi dugu, lurralde eta erkidegoaren eremuan behintzat.

Era berean, ikerketa arloan egindako ekarpen eta lankidetzengatik, nazio mailan sektoreko zientzialari taldearen erreferentzia ezaguna izan nahi dugu.

Gainera nazio mailan sektorean etengabeko hobekuntza eta zerbitzuaren kalitatea kudeatzen aitzindariak garela aitortzea nahi dugu.

## estrategia-ildoak

Arabako fauna eta natura ingurunea ezagutu eta errespetatzeko kultura **sustatzea**.

Arriskuan dauden animalia espezieak zaintzeko ikerketetan modu eraginkorrean **laguntzea**.

Animaliaren egonaldian eta sendatzen den bitartean higiena, bizkortasuna eta gizakiarekiko gutxieneko hartu-emanak izateko berme handienak **ematea**.

Helburuak bete eta lortzeko ekimena eta konpromisoa duen langile taldea **izatea**.

Erakundearen prozesuak modu eraginkorrean garatzeko beharrezko baliabide material eta azpiegiturak **jartzea**.

Etengabeko hobekuntza jarrera **sustatzea**, PDCA ezartzean oinarrituta (euskaraz: Planifikatu, Burutu, Kontrolatu, Jardun) eta interesdunak asetzeko (gizartea, ingurumena, etab,...) eta ezarri daitezkeen araudiko legezko eskakizunak betetzeko helburuekin.

## Kalitatearen politika

### baliok

**DIZIPLINA**, Martiodan lan egiterakoan, metodikoa izateak eta lanak diziplinaz burutzeak jasotako emaitzak eta taldeko lanaren dinamika hobetzen ditu. Honela, jarrera hau sustatzeko, egiteko bakoitza zehazten duten protokoloak lan taldearen eskura jartzen ditugu.

**ZALETASUNA**, Natura eta fauna zaintzearekin zerikusia duen lanak ikasketa-prestakuntza handia izateaz gain zaletasun handia izatea eskatzen du. Hori da Martiodako lan-taldea osatzen dutenengan bilatzen duguna.

**OHARKORRA IZATEA**, Lan honetan oharkorra izatea oso preziatua da, izan ere, barruan dauden animalien egoera eta garapen klinikoari buruzko informazio asko eskuratzeko aukera ematen du, bere zentroko egoitza gehiegi oztopatu beharrik izan gabe.

**SORMENA**, Mota honetako lanetan askotan sormen handiko irtenbideak behar dituzten egoera asko sortzen dira, izan ere, animalien egoeraren baldintzak ez dira beti tratatzeko errazak izaten. Gainera beraiei arreta eta ostatu emateko dauzkagun baldintzek ez dute hain erraz naturako egoeren antzik izaten.

**ARDURA**, Bere lanei aurre egiterakoan langile bakoitzak daukan ardura balioztatzen dugu eta horrekin fidatzen gara, honela, animalia zaurituak beraien esku jartzen ditugu.